







BERTSOLARI TXAPELKETA

Joxean AGIRRE

EUSKAL HERRI OSOA TXAPEL BATI BEGIRA



Lizaso, turbodiesel bat bertsotan
Enbeita, bapateko bertso idazlea
Lopategi, artaldeko ardi beltza
Murua, klasikoen bertsio aktualizatua
Egaña, Baserriren oinordekoa
Lazkano, adarra jotzen lizentziatua
Euskitze, silabak neurtzeko makina
Mendizabal, mezu berrien igorlea

Erdiak hogeitahamar urteko mutilak dira eta batzuek ez dute inoiz abarkarik jantzi, euskal jairen batetan ez bada. Gehienek telefonotik zintzilik egiten dituzte lanorduak kristalezko ofizinetan, semaforoetan agendak kontsultatuz dabilta herri batetik bestera edo teleprinterrari begira mintzo dira kamara-
ren aurrean. Mende berriko gizonak dira eta, hala ere, Guttemberg-en aurreko ahozko literatur jenero bat kulti-
batzen dute: bertsolaritza.

Visa txartelarekin ordaintzen dituzte etxekoan kapritxoak erropa dendetan eta batzuek dodotisaren garaiko haurtzaroa izan dute; etnografi museoetan bakarrik ikusi dituzte azpantarrak eta brusak eta, hala ere, iragan mendeetako prenda bat amesten dute: txapela.

Zaharra eta berria, oraina eta geroa uzartzen dituzte; herri honen abotsa dira: bertsolariak.

Kinielaren irabazleekin afaria trikitixa eta guzti


Bertsolari Txapelketa dela eta EGINek eratu duen Kinielaren irabazleek afaria egin zuten ostiral iluntzean Aranoko Benta Berri jatetxean. Karmen Arakistan Mendarokoa eta haren senarra, kinielako bidaia irabazi dutenekin batean, txapelketarako bina sarrera irabazitako beste guztiak agertu ziren. Sebastian Lizaso bertsolariak egin zuen sari banaketa egunkarian bertan eta etxeko zokomikoak bisitu ondoren jatetxera abiatu ziren afaldiarrak.

Gauak frustrazio bat bakarrik izan zuen. Sebastian Lizasok ez zuen bertsotara geratzeko denborarik, Zizurkilen beste konpromezu bat zuenez, aldegin beharra izan baitzuen.

Afari osoa bertsolaritzari buruzko bilkura akademikoa izan zen. Debate luze eta sutsuak egin ziren eta postreak iritsi zirenean, eguneko gai zerrendaren bigarren gaira pasatu ziren partaideak, trikitixara alegia.

Bigarren gai honi buruzko debate berrien buruan, esibizio bat eman zuten Josu Kallejok eta Ainize Aranburu gaztearen ordeiz etorri zen trikitilari bizkaitarrak. Lekeitioko bikote honi lagunduz, Nekane Aldunzin usurbildarra eta Josu Telleria bilbotarra saiatu ziren panderorekin eta beste guztiek ahal zutena egin zuten, batzuetan farreak ere leku eginez, Asun Marizkorrenak esaterako, farre atake luze bat izan baitzuen, afari erdian hasi eta berandu arte gaintu ez zuena.

Gauzak horrela burutu ziren eta Lizasok bere hitza erdizka bete zuenez, beste afari baterako fetxa izendatzekotan geratu ziren, baldin eta etxeak ordaintzen badu behintzat.



Mikel Mendizabal, barruko bakearen bila burrukan

Mendizabalen bitzta dualitate batek markaturik dago. Mutikoa zeneko perfila egiteko eskatzen diodanean, *"mutiko isil, bakarti eta barnekoia ninduan, baina aldi berean ausarta eta abentura zalea"*, erantzuten du eta bertsolaria bezala hazteko behar zuen energia bikoiztasun horretatik atera duela esan daiteke.

"Pertsona batzuk badaude beren buruarekin ia beti satisfetxo daudenak. Ni es nauk klase horretakoa. Nik barruan burruka bat bizi diat eta guztiz sentikorra naizelako edo poz haundiekin batean insatisfazio uneak izaten zetiati, errialdiak eta, noski, bigarren momentu horiei izaten ziet beldurra, barruko indarra kentzen baitzigutek. Nik uste diat hor badagoela superatzeko gogo bat ere. Maila normaletik gora nahi diagu egon edo izan edo beharbada lehen pertsonan hitzegin beharko niake eta esfortzu horrek faktura pasatzen zidak

eta hortik sortzen du nekea eta desilusioa. Adinarekin, noski, burruka hori baretuz joaten duk, bizitzak hire posibilitateen neurria erakusten duelako eta muga horiek onartzen ikasten duk", esplikatzen du.

Mikel nahiko pertsona transparentea da, irekia esan nahi dut eta sentimenduak kanporatzea kostatzen zaiola dioten arren, erraz eta zehatz aztertzen daki bere izakeraren zenbait alderdi. *"Nire gauzetaz hitzegiteko lotsa edo diat eta bertsolariak batzutan pelma samarrak jartzen garela, uste diat. Txapelketako agurretan, esaterako, egia duk nerbioso eta larri egoten garela, baina ez zaidak normala iruditzen, denek gauza bera ahotan ibiltzea. Ez zaidak inoiz gustatu martiriaren papela egitea eta saioetako agurretan nerbioak ez aipatzeko ahalegin guztiak egiten zetiati".*

Garai batetako bertsolariak mito zirela pentsatzen du eta gaur mito horiek erori egin direla. *"Garai batetan herriko alkateak joaten hituen estaziora trenean zetorren bertsolariari agur egitera. Horiek Uztapideren garaiak hituen. Orain kaletik barrena hoala, jendeak agur egiten dik, baina ez duk besterik eta nahiago diat nik horrela, ez baitzaidak gustatzen jendearen harrera gehiegizko hori ere".*

Mendizabalek insatisfazio haundiak eta txikiak bereizten ditu eta bigarren hauen artean karrera bat ez estudiatu izana aipatzen du. *"Posibilitateak izan*

*nitian eta ez diat unibersitateko espe-
rientziarik ezagutu eta pena diat".*

Bere hobby haundienetakoa zinea da. *"Egunero pelikula bat ikusiko niake"*, esaten du.

Musika mailan pianoa eta organoa iru-
ditu zaizkio beti entzungarrienak eta
eliza batetan sartu eta organoa entzu-
teak zirrarak sortu dio maiz. Etxean
entzuteko, hala ere, Mozart aukeratuko
luke inor aukeratzekotan.

Bizitzeko, berriz, denok amestu dugun
formula errealitate bilakatu du Mendi-
zabalek: jaio zeneko baserritik 50 me-
trotara etxe txiki bat jaso du andregaia-
rekin sozio eta han bizi da, otorduak
egiteko amarengana joanez.



Ana Amondarain: "Espazio irekiak maite ditu"

Txikitandik zuen joera hori, baina Do-
nostian lanean hasi zenetik, presaka
bizi da eta espazio irekiak behar izaten
ditu lasaitzeko. Inoiz ez da oso mendi

altuetan izan, baina Everest eta horre-
lakoetara joatea gustatuko litzaioke eta
itsasoak ere sekula atrakzioa du bera-
rentzat. Horregatik, beharbada, men-
dian oso bere aisara sentitzen da eta
horregatik erabaki zuen jaio zen le-
kuan, baserri ondoan, bizitzea ere.

Etxea zentzu horretan errefujio bezala
hartzen duela, esan dezaket eta Afrika-
ko lautada haundiak edo ez dakit non-
go eremuak ikusten dituenean, zabal-
tasun horrek lasaitasuna ematen diola,
pentsatu ohi dut.

Bere burua jazteko eta egunean egote-
ko ahaleginak egiten dituen pertsona
da. Ideia berriei oso kezkatuak ego-
ten da eta gizartean nola etengabe al-
datuz doan, egoera berrietara egoki-
tzeko eta bertsotan aldaketa horiek is-
ladatzeko interes bizia du.

Nik uste dut nortasun kontrajarria due-
la. Alde batetik publikoan kantatzen
ikusten dutenek erabat isila eta barne-
koia dela pentsatuko dute, baina gero
erabat irekia dela ematen du beste bal-
dintza batzuetan. Honekin ez dut esan
nahi bere kezka eta problemak erraz
agertzen dituenik, zenbat eta problema
gehiago, orduan eta itxiago jartzen bai-
ta, ondoan dagoenari eta lagundu nahi
dionari lanak erraztu beharrean, zail-
duz.

Bere buruarekin asko pentsatzen duen
pertsona da eta bueltak eta bueltak
ematen dizkie gauzei.

BERTSOLARI TXAPELKETA

Eztabaidarako asko balio du eta oso irekia da horretan, entzuten dakiena, baina baditu beti ere puntu batzu aldazten ez dituenak eta horietan erabat intransigentea da.

Atsegina da berarekin bizitzeko eta gauza guztien gainetik goxoa dela esango nuke.

Nere problema beste askorena da, bertsolari bezala asteburuak okupatuta dituela eta maiz berarekin joaten bainaiz ere, beste askotan nere kontura, nere koadrilarekin geratzea erabakitzen dut eta hori ere positiboa dela ikusi dut, horrela gutxienik lagunartea mantentzen baitut.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Nere kontzientziari, barruko bakerik ezari eta zenbait momentutako inseguritateari.

- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Ez.

- **Zure pertsonaia politiko miretsiena?** Pertsonaia horrek Arzallusen hizketarako frailetasuna, Fragaren jendea sutzeko adorea, Suarezzen sintzeritate aurpegia eta Idigorasen errealitate gordina isladatzen duen itxura beharko zetian.

- **Azkena irakurri duan liburua?** Atxagaren "Obabakoak".

- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** 86ko Txapelketan La Casillan erabat frustraturik eta erridikulo sentitu ninduan nere buruarekin.

- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Amaia Lasa.

- **Esaera zahar bat?** Politikoen eta abokatuen otoitza: emaiguzu gure eguneroko ezetza eta baietza.

- **Harroenik sentirazten hauen hiri fisikoaren zatia?** Soina buruarekin lotzen didan lepoarekin.

- **Askio emozionatu hauen bertsorik?** Hiletaren batean bi eta neure bertsoekin ere bai, Lesakan Aristorenarekin kantatu nuen bigarren bertsoarekin, publikoak hartu zuela konturatu nintzenean.

- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Orio edo Hondarribi Euskal Herrian eta Kuba edo Afrika erdiko triburen bat atzerrian.


- **Labur erantzun:**

Batman: boterea eta indarra.

M-ak: Musika talde euskaldun bat.

"Pendulo de Foucault": Ez diat ezagutzen.

- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Bi lagun joan omen hituen Nou Camp-era partidua ikustera eta jendetzaren artean galdu zirelarik, bata besteari deahadar egiten omen zioan, "Joxe-eeee", katalan batek katalajoak utzi zizkion arte. Katalajoak hartu eta ikusi zuenean, "Hi Joxe, goazemak hemendik" esan omen zion baju-baju.



Lazkano, Landetako unibertsitatean adarra jotzen lizentziatua

Soldaduska egin eta hogeitahamar urterekin ezkondu zen bitartean Landetan, Joxe Lizasoren tabernako kontertulio finenetakoa izan zen Imanol Lazkano eta han ikasi zuen, ez bertsotan, baina bai adarra jotzen. *"Ni ordurako obratan lanean hasia nengoan eta ia gauero Lizasonean bokadiloa edo kazuela bat jaten geratzeko ohitura nian, ez etxean okerrago jaten nuela, baizik han zegoen giroagatik. Joxe Lizaso bera izugarri hitzun abila huen eta sei-zortziko mahaia juntatu ohi gintuan, tartean sasi-bertsolari eta bertsolariekin. Mahaian eseri orduko jartzen genian adarra jotzeko makina martxan eta ez ginuztean geratzen 11,30ak edo 12ak bitartean. Egun batzuetan tertuliak beranduago arte irauten zian eta ordu guzti horietan zehar zeharka edo zuzenean haundiak entzun eta haundiagoak erantzutera dedikatzen gintuan. Beti egoten huen paganoren bat*

edo harekin sartzen gintuan denok, baina gutarikoren bati tokatzen zitzai-gunean ere aguantatzen ikasi genian. Nik ez diat ezagutu Euskal Herri guztian adarra jotzea horrela instituzionalizatuta zegoen beste lekurik eta alde horretatik Landetako unibertsitate horretan umore berezia landu dela esan zezakeat, horretara dedikatzen bait ginen egunero. Tarteka bertso zaharrak ere kantatzen gitian, baina berriak inoiz ere ez, edo oso gutxitan. Gogoratzen nauk Iberdueroren langile bat asko kantatzen zituena, Jorge izeneko mutil-zahar bat huen eta hari ikasitako doinua duk nik Laudion erabili nuen bat", esaten dit eta "Donostiako neskaxa haurdun bati" jarritako bertsoa ikusgarriak kantatzen dizkit.

Imanol giro horretan egin zen bertsolari eta giro horretan egin zen Sebastian Lizaso ere. *"Sebastian txikia zela, mutil hau sekula txikia izan ez bada ere, han egoten zen aitaren ondoan eserita kontuak entzuten eta mundu hori erabat jandako bertsolaria ateratu duk. Eskolako lanak egitea baino nahiago izaten zian gurekin egotea, amak hartu eta ohera eramaten zuen arte".*

Tertulia horien tradizioa aspaldiko du "unibertsitate" horrek, Uztapide, Base-ri eta gainerantzekoek taberna horretara erretiratzeko ohitura baitzuten bertsotara ingurura etortzen zirenean. Egun horietan ohizko kontertulioez gainera punta-puntako gonbidatuak izaten ziren landetako mahaiaren bueltan.

Imanolek 53 urte ditu gaur eta haren estiloa konprenitzeko begirada retrospektibo hori beharrezkoa da. Orain ere Imanol kontalari ona da eta berriki Nikaraguan zuen alaba bisitatuz herrialde horretatik zehar Kubara egin duen bidaia bakarrik nahikoa da egunkariko orrialde bat betetzeko.

Alaba ere etxeratu zaio eta Izarraitzen bizkarra aurrez-aurre begiratzen duen etxe batetan bizi da Landetan sultan bat bezala, etxean zazpi emakume bait ditu, lau alaba, emaztea, amagiarreba eta koinata.



Arantxa Odriozola:

“Gizonezko artean bakarrik ibiltzea tokatu zait”

Orain oso normala da bertsolarien emazte, andregai edo lagunak beren senarren edo senargaien saioetara joatea, baina ni joaten hasi nintzenean ez zen inor joaten eta urteetan gizonezkoen mundu horretan bakarrik ibiltzea tokatu zait.

Egia da garai hartan bertsolariek ere ez zutela gaur duten troterik. Negu partean behinik behin oso gutxi mugitzen ziren, festak akabatzean bertsoak ere akabatu egiten baitziren eta urtean hila bete batzu lasai pasatzen genituen. Orain erabat aldatu da gauza eta ez dira gelditu ere egiten. Neri, noski, ez zait guztietara joatea gustatzen, baina arratsaldeko saio bat denean, Imanolekin joan, koadrila afaldu eta buelta bat egitea gustatzen zait.

Gainera orain emakumeok ere geure koadrila egiten dugu eta elkarrekin oso harreman onak ditugu.

Imanolen nortasunaz ez dakit zer esan. Umore oneko pertsona da normalean, lanak edo txapelketak umore hori kentzen ez dioten neurrian. Gainerantzean, etxean ez dut uste asko kantatu duenik. Alaba txikiak orain 12 urte ditu eta uste dut horrekin kantatuko zuela gehien, bertso zaharrak eta horrelakoak. Hori baino gehiago gustatu zaio ipuinak asmatzea eta askoz ere gehiago oraindik txisteak kontatzea.

Libre dagoenean mila ofizio ditu. Etxe ingurua gauzez beteta dauka. Behiak jarri ditu orain eta haroztegian ere ari tzea gogoko du eta mendi buelta batzuk egitea ere bai. Horrelakoetan nahiago izaten dugu kaletik gehiegi ez ibiltzea, bestela bertsoa beste konturik ez baita izaten.

Eguna datorrenean bere baitan sartzen da eta orduan hobe da ez moles-

tatzea. Jan ere ez du ezer jaten, baina nik horrela ikusi ditut bertsolari gehienak eguna datorrenean.

Saioa izan eta gero lasaitzen da eta jaten du. Horregatik berari Txapelketako

saioa goizetik izatea gustatzen zaio.

Nik uste dut ez dela bat ere timidoa eta sentitzen duten beldur hori erresponsabilitatea dela gehiago beste ezer baino.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Lagunak galtzeari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Ez. Kanpoan naizenean bakarrik.
- **Hire pertsonaia politiko miretsiena?** Ez zioat inori maitasun berezirik.
- **Azkena irakurri duan liburua?** Xalbadorren "odolaren mintzoa", baina oso irakurle txarra nauk.
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Soldaduskan eta nere lekutik kanpo sentitu naizen guztietan.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Konfidantza beharko niake eta ez diat zoritxarrez hainbeste konfidantza dudan emakume asko.
- **Esaera zahar bat?** Politikoak eta mizperak, zenbat eta ustelago eta hobeak.
- **Harroenik sentirazten hauen hiri fisikoaren zatia?** Hainbat aldiz esan zidatek baldarra naitzela, ez nauk ezerekin harro sentitzen.
- **Askio emozionatu hauen bertsorik?** Bat baino gehiagotan, baina ezin diat zehaztu.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Euskal Herrian Getaria edo Hondarribia eta kanpoan ez zekiat, Kubak oso inpresio ona egin zidak.
- **Labur erantzun:**
Batman: Ez zekiat.
M-ak: Ez eta ere.
"Pendulo de Foucault": Ez.
- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Bilintx bertsolaria mozkor batekin gurutzatu omen huen Donostiako kalean eta "Aio Bilintx", esan omen zioan eta honek "Aio Balantx", erantzun.



Murua, Txapelketak haurra ekarri dion mutila

Azpeitian, final erdietako lehen saiora joan behar zuen egunean erdiminetan jarri zitzaion emaztea Iñaki Muruari. "Goizeko ordu biak aldera sentitu zizkian lehen minak eta ordu batzuk beranduago dei egin nioan Jesus Muruari ez nindoala esateko. Ero bat bezala jarri huen eta mesedez eta arren joateko modua egiteko esan zidan. Nik txapelketak bizitza honetan gehiago ere izango nituela, baina bigarren semea bizitzan behin jaiotzen zela erantzun nioan eta gauza, horrela, zalantzan utzita itzuli ninduan ohera. Goizean, joateko ordua iritsi zenean, artean kontrakzioak hamar minututik behin zituela eta abiatu ninduan Azpeitira. Han publikoaren artean adiskide bat jarri nian, noizean behin etxera deituz eta haren keinueen zai, kantatu nian, baldin eta seinalea ematen bazidan, bertsoa nuen horretan utzi eta etxera itzultzeko. Zu-

marragako ospitalea hamar minututara baitugu. Nik ez nian duda izpirik egingo, baina ez nian aldegin beharrik izan, haurra gaua arte ez bait zen jaio", esaten du, trapu zurien artetik ozta-ozta agertzen den aurpegi txiki eta zimurtua erakutsiz.

Astebeteko haur bati zail da inoren antzik ematen, baina ilea ez zaio aitaren aldekoa atera, txima beltz lisoak baititu dagoeneko buru oraindik apepinatuan.

Iñaki eta Blanca bi solairuko etxe argitsu batetan bizi dira Gabiriako puntan. Saloiko lehio argitsuetatik Gipuzkoa erdia ikusten da, Txindokitik hasi eta Bizkaiko mendietan bukatuz. Gusto ona nabari da dekorazioan eta Blancaren eskua ikusten da etxean zehar eta Murua beraren gustoetan ere.

Blanca andereñoa da eta euskaldun berria. "Euskarazko liburuak neuk aukeratzen zetiat, bizi ere Goierriko Lanbide Eskolan euskara erakutsiz bizi bait naiz, nahiz eta maestriako ikasketak egin nituen, baina erdarazko literatura berak kontseilatzen zidak".

Iñaki Gabiriako Agerretxe-etxemendi baserrian jaio zen duela 33 urte eta aitarengandik jaso zuen bertsotarako afizioa, herriko txapela irabaztera iritsia baitu Eugenio, aita.

Iñakik Gabiriako bertsolariekin trebatu du bere estiloa eta definitzeko eskatuz gero, tradizional bezala jotzen du bere bertsotarako moldea, nahiz eta bertsolaritzaren oinarri den euskara dezente

landu duen. Mikroaren aurrean jartzen denean, gai humanoekin sentitzen da ondoen eta sentimenduak kanporatuz kantatzea gustatzen zaio gehien.

Hobbi asko ditu denbora librean okupatu behar denean eta afizio horien artean baserrian jarri duen "negozioa" aipa daiteke, bi behi bait ditu han, haurtzaroko egunak ebokatzeko edo.



Blanca Lopez:
"Oso extremista da askotan"

Berarekin bizitzeko oso pertsona atsegina da. Alaia eta lasaia izateaz gainera, edozein gauzarekin gozatzen daki. Arazo bakarra da nahi baino denbora gutxiago pasatzen dudala berarekin, aste bukaera askotan etxetik kanpo bertsotara joaten delako.

Hala ere, semea erabat aitazulo da. Etxean dagoen iluntze guztietan berak oheratu behar izaten du, gauero berarentzat istorio desberdinak asmatuz. Nerekin umeak askoz ere denbora gehiago pasatzen duen arren, edozein

gauzatarako harekin nahiago izaten du.

Baserriari zeharo lotua dago. Baserriak asko esan nahi du berarentzat, bere haurtzaroko oroitzapen zoriontsuenak han gordeta baititu. Ez dut uste bere esku dagoen bitartean eroritzen utziko duenik. Gu ez gara han bizi, baina ordu asko igarotzen ditu gurasoei eta osabari laguntzen. Gu ere, umea eta ni, gustora joaten gara, oso ondo pasatzen baitugu.

Nik lñakiren beste bi ezaugarri aipatuko nituzke. Alde batetik, oso estremista dela askotan. Edo zuri edo beltz. Benetako "leo" bat da horretan. Horregatik txokatzen dugu batzutan, ni modera-tuagoa naiz eta.

Beste ezaugarri bat, juergarako duen zaletasuna da. Asko gustatzen zaio gauetan irten eta tarteka juerga egitea eta orain lehen baino askoz ere gutxiago ateratzen bagara ere, okasioa denean, ondo aprobetxatzen du.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Zurikeriari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Ez. Andrarekin.
- **Hire pertsonaia politiko miretsiena?** Inor ere ez diat hainbeste miresten.
- **Azkena irakurri duan liburua?** “Conjura de los necios” eta Daniel Landart-en autobiografia batera.
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Ezer egin ezin dudan situazioetan.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Elene Lizarralde.
- **Esaera zahar bat?** Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu.
- **Harroenik sentirazten hauen hiri fisikoaren zatia?** Aurpegiarekin.
- **Asko emozionatu hauen bertsorik?** Azken txapelketan, esaterako.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Elantxobe Euskal Herrian eta Australia atzerrian.
- **Labur erantzun:**
 - Batman:** Supermanen kontrinkantea.
 - M-ak:** Euskal musika taldea.
 - “Pendulo de Foucault”:** Humberto Eco-ren azken nobela.
 - **Konta iezaguk txiste labur bat.** Mattin eta Lazkao Txiki Donostiako kaleetan barrena zihoazela hanka-motz bat ikusi omen zien. “Hi Joxe Migel, hori ere gu baino gehiago duk”!, esan omen zion Mattinek besteari. “Horrek bat zeukak motza eta guk biak”.



Enbeita junior, bertsolari saga batetako altzuma berria

Arbasoen balentrieekin identifikatzeko ordua mutikoei ailegatzen zaienean liburu zaharkituak zabaldu behar izaten dituzte. Jon Enbeitak etxean bertan aurkitu zituen modelo horiek, aitona izan baitzen Bizkaian bertsolaritza instituzionalizatu zuena, Balentin Enbeita aita bertsolaritza horren aurpegirik ezagunenetakoa eta familia osoa bertsolari.

"Aitonaren aitak egin zuela uste diat zubitza joan den mendearen bukaeran. Erdi koplari eta erdi bertsolari omen huen. Bi puntu batera eta beste bi bestera kantatzen zian. Dena den, "Urretxindorra" izan huen gaurko molde herrialde honetan ezarri zuena. Haren ondotik foko desberdinak sortu hituen herrialde honetan ere. Nagusia beharbada eskualde honetakoa huen nere aita Balentin buru zela, baina bahituen beste batzu ere, Markinaldekoa, esaterako, Mugartegik eta Azpilla-

gak ezagutzera eman dutena...". Elkarriketak dagoeneko historiaren bidezigorretatik barrena galtzeko arriskua du, baina ezin daiteke bestela izan, Jonek zita egiteko aukeratu duen lekua berak ere, Garriko Bertsolari Eskolak, historia ebokatzen baitu. "Garriko Bertsolari Eskola izan zen Euskal Herrian egin den lehen bertsolari eskola. 1959an sortu ziaten nere aitak eta Ajuriaren aitak bigarren horren tabernan eta han ikasiak gaituk Irineo bera, Lopategi, Sardui anaiak, Iturria eta ni neu, orain eskola hori Muxikako eskola zahar honetara trasladatu baldin badute ere".

Jon Enbeita eskola horretan hezia den arren, etxetik zekarren hazia eta bakar-dadean bere gisara landutako bertsolaria da, literatura bezalaxe, norbere buruarekin hitzegiteko erabiliz. Haatik, beharbada, bertsolaritza elkarriketa bezala ulertzen dutenek ez diote Enbeitari hainbesteko begirunerik, baina molde idatziekin gozatzen dutenek meategi bat dute mutil honengan.

"Nik hamahiru urtetatik hogeira bitartean bertsopak irakurri eta idaztera dedikatu ninduan seminarioan eta honek eraginen bat utziko zian. Neri bertso trinkoa gustatzen zaidak, zenbait eta eduki gehiago hobeto eta horretarako neurri luzeak erabili behar izaten zetiart. Nere ideala bertsoak idazten diren bezala kantatzea duk".

Jonek aurrezki kutxa batetan egiten du lan eta arratsaldetan buelta bat eman eta despejatu ondoren Gernikako bere

etxabizitzan prestaturik duen ganbaran sartzea gustatzen zaio, bere baitara bildurik pentsatu, irakurri eta bertsoak egiteko. Plazara ateratzen denean, konzentrazio hori lortzea izaten du helburu.

"Bertsoa egiten ari naizenean gorputz guztiarekin bizi eta espresatzea nahi izaten diat. Parto bat bezala duk hori. Esan nahi dudana zera duk, ahalik eta gehien kondensatzen saiatzen naizela eta konzentrazio hori lortzen dudanean, nekatu baino gehiago deskantsatu egiten diat. Horregatik txapelketako saioetan jenderik gabeko guneak aurkitzen saiatzen nauk, jendearen aurpegiek, erreakzioek eta espresioek distraitu egiten baitute. Azpeitiko saioan gogoratzen nauk, bakarkako saioan haria galdu nian bertsoa kantatzen ari nintzela eta lehen filan zeuden anaien erreakzioak ikusi nitian seguru zati batetan; bat behera begira, bestea eserlekuan mugituz eta neure burua ikusten nian aldi berean berriro bidea egin ezinik. Momentu horietan nahikoa duk hire buruarekin, beste inori kontu egiten hasi gabe ere. Horregatik asko eskertu nian azken txapelketan bertsolarien aurrez-aurre, goi antzean, Belodromoan jarri zuten panel berde bat. Hari begira kantatu nitian bertso guztiak eta gustoa ematen zian".



Karmele Gardoki: "Artistek bezala, ondoan norbait behar du"

Hemezortzi urterekin ezagutu nuen eta orduan kantari bezala zebilen herriz herri. Geroztik ez dut uste asko aldatu denik; nik heldu egin dela esango nuke.

Gonbarazio bat egin beharko balitz, bertsolari bezala askoz ere gehiago sufritzen dutela esango nuke eta neregatik txapelketak kendu egingo nituzke. Nik segituan antzematen diot, gauza gehienetan antzematen diot eta horrela nerbioso samar dabilenean errazago. Horrela dagoenean alferrik izaten da dei egin edo zerbait esatea ere. Nik uste dut sufritu egiten dutela eta neri momentu horietan animatzea, ondoan egotea eta laguntzea tokatzen zait.

Etxean kantatzea asko gustatzen zaio eta batez ere bi alabekin teatroa egitea, disfrazeak jarri eta ibiltzea ere bai.

Nik uste dut poeta bat dela, ez bertsoetan egiten duenean bakarrik, hitzegiten

duenean ere, sentsibilitate handia du. Poesia gustatzen zaio eta irakurri ere gehien poesia irakurtzen duela pentsatzen dut.

Egoera normaletan ekilibratua da, baina artista guztiek bezala ondoan norbait behar duela pentsatzen dut.

Perfekzionista samarra da eta beti gehiago nahi duen horietakoa, ondoen egiten duenean ere, etxera etorri eta

deskontentu agertzen baita, hobeto egin zezakeela esanez. Hori badakit ona dela, baina bestalde, bere buruarikiko burruka ekartzen dio.


Azkenik, beste ezaugarri bat aipatuko nuke, asko inporta zaio jendeak zer pentsatzen duen eta interes handia agertzen du honelakok edo halakok berari buruz zer esan duten jakiteko orduan.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Gaizki eginaren ebidentziari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Udan ez, neguan bai.
- **Hire pertsonaia politiko miretsiena?** Ez diat maila horretan admirazio berezirik.
- **Azkena irakurri duan liburua?** Xalbadorren "odolaren mintzoa".
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Erridikulu txikiak asko.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Pentsatzen jarri beharko niake.
- **Esaera zahar bat?** Gari ona kutxatik saltzen da.
- **Harrorenik sentiarazten hauen hire fisikoaren zatia?** Dezenteeena abotsa.
- **Asko emozionatu hauen bertsorik?** Nere aitari Bilbon egindako omenaldiko bertsoetan eta negar ere inoiz egin diat neure bertsoren batetan gaian, erabat sartzea lortu dudanean.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Bizkaian Gernika, Gipuzkoan Zarautz eta Lesaka inguruan Nafarroan. Kanpoan oso gutxi ibilia naiz.
- **Labur erantzun:**
Batman: Fantasia.
M-ak: Ez zetiari ezagutzen.
"Pendulo de Foucault": Ez.

- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Hanka hautsita eraman omen ziaten gizon bat medikuarengana, belauetik behera kordela bezala zangoa zintzilik zuela eta orduak konpontzen eginda gero, galdetu omen zioan: "Nolako aberia. Kamioi batekin edo?". "Ez -erantzun omen zioan-, futbolean. Nabo batekin futbolean ari ginela, korner ateratzen hasi eta zerla bat etorri huen eta hozka egitean hanka hautsi zidak".

"Sekulakoa duk", esan omen zian medikuak eta besteak erantzun: "Hau ez duk ezer, buruz errematatzeraz joan zen laguna ere hor zegoen atean zai".



Euskitze, gramatiko bat bertsotan

Gazteentzako moda aldizkarietan agertzen diren modeloen irudia ematen du Xabierrek isilik dagoenean; guapoa, deportiboa eta osasuntsua. Kantatzen edo hitzegiten duenean, ordea, heldutasunaren pertsonifikazioa da. "Hogeitahiru urte zetiat, baina 27 ditudala esaten dudanean beti sinesten zidatek eta, alderantziz, 20 ditudala diodanean inoiz ez. Baduk Azpeitian periodiku saltzaile bat nere aitari beti gauza bera esaten diona: "Hire seme horrek azkarregi utzi zioke ume izateari" eta horrelako zerbait gertatu zaidak beharbada", esaten du.

Xabierrek dituen dohain berezien artean badago bat bertsolari mundukoak ez garenoi harrigarri egiten zaiguna. "Nik aspaldidanik hartu nian 10-8 silabetan pentsatzeko ohitura eta sarritan atzematen diat nere burua neurri horrekin pentsatzen. Hori gero mania bat bilakatu zaidak eta hemen bertan,

ETBn, lanean nagoenean ere maiz ikusten diat nere burua neurri horrekin jolasean. Nahikoa duk coca-cola bat edatera joatea edo atsedenaldi bat hartzea, burutazioak molde horretara nahi gabe bideratzeko. Inoiz 7-6 silabekin ere saiatu nauk, baina hori gehiago duk jolas egiteko eta pentsatzeko neurri luzeagoa hartzen diat", esplikatzten du.

Txikitandik gustatu izan zaio hizkuntzak bere baitan dituen laberintoetan barrena galdu eta jolas egitea. Amak inoiz, loak hartzeko edo, azkoitiarrez hitzegiten zien bi semeei eta Xabierrek Lesakako izebak bezala hitzegiteko eskatu ohi zion amari. "Hizkuntzaren izkutokiekin erabat liluratuta bizi nauk eta inguruko bertsolarien akats gramatikalek minik egiten ez bazidatek ere, neuk ezin zioat neure buruari horrelakorik onartu. Baztango euskararekin erabat enamaturik nagok eta sarri jotaten nauk hara eta Urepelera ere, euskalki horietan murgildu asmoz, nahiz eta beste guztiak ere interesatzen zaizkidan".

Hogeitahiru urtetako bertsolari honek ETBko "Azken txanpa"ko ekipoa zuzentzen du gaur, baina bere bizitza bi esperientzia nagusik markatu dute, bertsolaritzak eta irratiak. "Bi esperientzia horiek bateratsu hasi nitian. Mikroaren aurrean beti sentitu nauk gus-tora. Nere abotsa entzutea gustatzen zaidak eta profesionalki zaletasun hori desarroilatze abagunea sortu zitzaiz-

dan, Euskadi Irratian pelota partidua retrasmittuz. Ikusten nengoen hura, sentitzen nuen hura, emozionatzen ninduen hitzetara itzuli eta entzuleei eskaintzea eta emozio hori bere horretan komunikatzeko formula berriak ikertzea, izugarrizko esperientzia izan huen neretzat. Alor horretan ez nian maisurik, euskaraz oso gutxi landu baituk pelota irradian eta momentu askotan bidegile sentitu ninduan. Oraindik ere planik ez dudan larunbat askotan pozik joango nindukek pelota partidua retrasmittuzera, ordainduko ez balidate ere. Eskolarteko txapelketa joan eta txapela atera nian eta txapel horri esker lortu nian irratiko lana. Bi esperientzia horiek uste diat eman didatela dudan heldutasun apurra”.



Lurdes Mendizabal: “Nere semea perfekzionista bat da”

Xabier perfekzionista bat izan da beti. Hori bai, kosta egiten zaio gauzak egiten hastea, baina hasten denean ondo

eta txukun egitea gustatzen zaio. Gela jasotzea, esaterako. Orduak behar ditu baina ondo egiten du, egiten duenean. Nik uste dut bertsotan ere jarrera hori nabari zaiola.

Gure semeari buruz aipatuko nuken bigarren ezaugarria, bere heldutasuna da, izugarri sensatzaile izan baita beti. Gogoratzen naiz behin ikastolatik irakasleak dei egin zidan, gelan katxondeo giroa jartzen zuela, ondokoei lana galeraziz eta horrelakoak esanez. Gau hartan bertan hitzegin nuen berarekin eta beste batzuek gurasoen kontra jartzen ziren bezala, Xabierrek onartu egiten zuen arrazoiarekin zerbait esanez gero.

Ni beti ama eta adiskide izaten saiatu naiz semeekin. Pentsatzen dut ama guztiek hori egingo dutela, baina nere kasuan lortu dudala esango nuke. Beti egin dugu jolas asko elkarrekin eta txikitari euskararekin jolasean aritzen ginen askotan ohera sartu eta gero.

Izateko eran ez dakit noren antza duen, baina fisikok bere aitaren antzekoa da, nere senarra oso goapoa baita.

Patxada haundiko mutila da, baina txapelketa datorrenean, aldatu egiten da pitin bat eta isiltasun gehiago nabari izaten zaio. Tarteka entrenatu ere egiten ginen eta ni izaten nintzen bere gaitortasuna. Orain ez dugu horrelakorik egiten. ‘Jar ieza dazu gai bat’, agintzen zidan eta saioa egiten genuen.

Xabier logika izugarrikoa da eta beti izan da ezaguera haundikoa eta ama batek zer esango du bada, oso pertsona atsegina dela, pentsatzen dut.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Loiolako koartelari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Normalean ez.
- **Hire pertsonaia politiko miretsiena?** Mari Carmen Garmendia eta Txema Montero.
- **Azkena irakurri duan liburua?** Atxagaren "Bi anai".
- **Erridikulua egin duan situazioaren bat?** Aszentsorean norbaitekin zer eguraldi egiten duen komentatu behar dudanean.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Elene Lizarralde.
- **Esaera zahar bat?** Zurraren polsak bi zulo.
- **Harroenik sentirazten hauen hiri fisikoaren zatia?** Nere begiekin edo hankekin.
- **Asko emozionatu hauen bertsorik?** Lagun haundi baten entierroan kantatu nituenean.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Donibane Garazi edo Barkoxe Euskal Herrian eta Holanda atzerrian.
- **Labur erantzun:**
 - Batman:** Boteilan lixiba sartzera inzitatu duen filmea.
 - M-ak:** Hotz egiten zaidan taldea.
 - "Pendulo de Foucault":** Ez zekiat.
 - **Konta iezaguk txiste labur bat.** Momentu honetan ez zaidak bakar ere bururatzen.



Egaña, lanak baretzen duen mutila

Andoni Egaña norabide zuzenik gabe-ko meteoro bat bezala sartu zen bertsolaritzan eta geroztik bazterrak erre beharrean dabil. Ironikoa, brillantea, azkarra, kulta, biharko bertsolaritzaren ezaugarriak apuntatzen ditu, atzokoaren balioak inolaz ere ukatu gabe. Bere arazo nagusia identitate garbirik eza dateke. "Iturbur askotatik edan diat eta beharbada erregistro oso ezberdinen jabe egin nauk urteotan zehar. Oso estilo desberdinetan sentitzen nauk eroso, ondorioz eta izatekotan neurea den estilo baten falta dela iruditzen zaidak problema nagusia", esaten du.

Aurpegi askotako nortasuna du Andonik. Jupien ukitu eskisito batzuk ditu eta lehengo militanteen gogortasun eta agresibitatea ere bai, horiek erakutsi nahi dituenean; brooker baten garrotea du bizimoduaren eta gauezko irratien giza abots leuna adiskideekin hitzegtuten duenean.

"Ni hiperaktiboa nauk eta lan pilo bat egiteko dudanean bakarrik sentitzen nauk lasai eta ondo", esplikatzen du. Horregatik beharbada elkarrizketa hau ere piska bat presaka egin genuen, Zarauzko Otamendi tabernan kafea hartzen ari zen bitartean.

EGIN.- Eszeptikoa?

Andoni EGAÑA.- Eszeptiko samarra nauk, baina neurri batekin. Bakarkako saioan hirugarren bertsoan beti ere esperantza mezu bat ematen saiatzen nauk.

E.- Zein eskolatan zorritzdu duk ironia?

A.E.- Ni bertsolarien artean gaiztotu nauk. Duela lau urte elkarri adarra jotzeko kaletar soilek dituzten teknikak bakarrik ezagutzen nitian, baina Azpeitiko eta Aia aldeko bertsolarien artean ibili nauk eta tranpa eta gaiztakeriak eta gauzak zeharka esateko modu hori neure egin zetiat eta gauza bat entzun eta beste bat ulertzen ikasi diat eta orain neure koadrilakoak adarra jotzen hasten zaizkidanean, mila buelta ematen ziet. Lizaso, Lazkano ta horiek izan zetiat maisu eta uste diat nahiko ikasle fina atera naizela.

E.- Non sentitzen haiz komodoen, eskola zaharrekoekin edo berrikoekin?

A.E.- Uste diat bietan ondo aritzea dela aberatsena eta bietan aise aritzeko gaitasun hori asko gustazen zaidak. Arazoa identitatetik eza duk beharbada, oraindik ez bait zekiat ondoegi neure mugak non dauden.

E.- Hire tikak zer dituk, teknika eszenikoak?

A.E.- Nik uste diat, rito batzuk direla gehiago. Ez nauk bat ere superstizio-soa, baina gustatuko litzaidake rito horietan sinestea eta nolabait sinesten dudala esango niake. Mikroa ahoa baino goraxeago jarri behar izaten diat, publikoan aurpegi konkretuak ez ikusteko eta beste zenbait tik ere bazetiat, bertsoa ondo moldatzeko.

E.- Erraz konzentratzen al haiz?

A.E.- Ofizio oso arraroa duk bertsolari-tza. Goizean igual primeran aritzen haiz eta gauean ilusioz beteta joaten haiz beste saio batera eta desastre egiten duk.

E.- Nerbioak?

A.E. Nik bezperan lo lasai egiten diat, baina saio ondorengo gauean gaizki. Etxera joan eta saio osoko bertsoak etortzen zaizkidak banan-bana eta saio txarra egin baduk, ba, tortura txiki bat duk hori. Jeneralean ordu batzu egiten zetiat lo hartu ezinik.

E.- Nola zaintzen duk osasuna?

A.E.- Ni deportista amorratua nauk eta medikuntza aldetik ere asko interesa-

tzen zaidak deporteak. Bolada luze honetan lanagatik edo piska bat utzita diat alor hori eta, aitortu behar diat egunean pakete eta erdi erretzen diat aspaldion, baina orain ere oso gutxi kostatzen zaidak txandala jantzi eta ateratzea. Bertsotan entrenatzea asko kostatzen zaidan bezala, deporteak egiteko prest nauk edozein momentuan. Bi maratoni egin nizean garai batetan eta futboleko eta pelotan asko jokatu diat eta gimnasioa ere maite diat. Orain bizikleta bakarrik praktikatzen badiat ere, urte berriarekin hasiko nauk berriro gimnasia bueltara.

E.- Deskantsua?

A.E.- Niri trotea gustatzen zaidak, baina mania bat diat nerekin, asko kostatzen zaidala egun osoa etxetik kanpo egitea. Eguerdian momenturen bat neure etxera itzuli eta siesta txiki bat egitea gustatzen zaidak. Siesta zale amorratua nauk, horrela egunak bi egun ematen dizkidala pentsatzen bait diat.



Elisa Martinez: “Beti ezin iritsita, baina pozik ikusten dut”

Nik ez dakit noiz erreko den, baina oraindik gauza asko egiteko fase horretan dagoela uste dut eta presaka bizi da; beti du egitekoren bat eskuarteran eta lana ez bada, bilerak edo bertsoak izaten ditu eta patxada momentuak oso gutxi hartzen ditu. Nik uste dut, horrela bizitzea gustatzen zaiola eta beharbada beste urteren bat edo beste iraungo du, baina seguru asko, erritmo hori aldatu egin beharko du. Edo igual horrela segitzen du bizitza osoan.

Biok zarautztarrak gara, baina ez ginen hamalau urte arte ezagutu, Andoni ikastolan ibili baitzen eta ni, berriz, mojetan. Ikastolan ibilia delako edo betidanik mugitu da euskararen eta euskal gauzen munduan eta neri asko kostatu zitzaidan bertsolaritzaren munduan sartzea, nahiz eta inoiz erabat sartu ez naizen.

Andoni bai, bertso liburuak irakurtzen

eta bertsoak egiten nahiko goiz hasi zen. Estudiante bezala ere, azken egunetan estudiantzen duten horietakoa zen eta denbora izaten zuen edozertarako. Horregatik, mundu horretan ibilia delako edo oraindik ere ez du erabateko erraztasunik erdaraz eta horretan nola nik irabazi egiten diodan, erdarara pasatu ohi naiz diskusioren bat dugu-nean, nere euskara etxean eta kalean ikasitakoa baita.

Orain sei hilabeteko umea dugu eta nik hiru hilabeteko eszedentzia hartu dut zaintzeko. Pentsatzen dut txapelketa bukatzean Andonik denbora gehiago izango duela, baina aspaldian nahiko liatuta dabil eta ez da etxean gehiegi egoten. Hori bai, dagoenean saiatzen da haurra zaintzen eta kanta politikak kantatzen dizkio, seaska-kantak eta horrelakoak.

Bere irudia nik zaintzen diodan? Ez eta pentsatu ere. Gauza guztietan oso pertsonala da eta erropak ere berak aukeratzen ditu, nahiz eta nik erosketak egitera laguntzea nahi izaten duen.

Txapelketarekin nerbioso? Azpeitiko saioaren aurretik ikusi nuen piska bat nerbioso, baina Gernikakoan oso ondo zegoen eta orain ere lasai ikusten dut, bere helburua bete duela esanez.

Ditugun puntu komunak artean deportea aipatuko nuke, ni ere oso deportezalea bait naiz, nahiz eta orain haurragatik utzi dudana.

Testa


- **Zeri diok beldurra?** Oiolei.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Bai.
- **Zure pertsonaia politiko miretsiena?** Dolores Ibarruri.
- **Azkena irakurri duan liburua?** Elexpururen "Txakur zaunkak atean" irakurri diat azkena.
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Hainbestetan sentitu diat erridikulua, ze ezin dudala situazio bat aipatu.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Amaia Lasa.
- **Esatera zahar bat?** Kieerkegard-ena dela uste diat: Emakumeak konkistatzea ez da zaila, konkistatzea merezi duen emakumea aurkitzea duk zaila.
- **Harroenik sentirazten hauen hiri fisikoaren zatia?** Ez zekiat zer erantzun.
- **Asko emozionatu hauen bertsorik?** Gutxitan, baina zaila zaidak gogoratzen.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Getaria eta Zumaia bitartean dagoen San Prudentzion Euskal Herrian bada eta kanpoan izatekotan Asturiasen.
- **Labur erantzun:**

Batman: Paso egin diodan pelikula.

M-ak: Gustatzen zaidan taldea.

"Pendulo de Foucault": Noizpait irakurriko diat. Egin badiat hain snoba ez izatearren ez diat irakurri.

- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Tipo bat joaten duk izena aldatu nahiz juzgadura eta juezak oso tramite zaila dela esaten dion arren insistentia egiten dik eta juezak galdegiten dio: "Zer izen duk bada horrelako premia izateko?". "Jesus Kaka diat izena" erantzuten dio. "Zer izen jartzea nahi duk, bada? galdegiten dio juezak eta honek: "Josu Kaka".



Lopategi, west-eko heroea

Lopategik zinea zuri-beltzean egiten zen garaiko aktoreen aurpegia du, beltzetik zuritik baino hurbilago badu ere. Etsaiz inguraturik ere burua makurtzen ez duen gizon bakarti baten papera egingo zukeen, baldin eta Euskadiko mendebaldea den Bizkaia oestea baltz.

Errekalamiña izenarekin jaiotetxe ondoan etxe berria jaso du eta bertara biltzen denean bakarrik lasaitzen da. Guk erabat relajaturik aurkitu genuen bazkalondo epelean harrizko hormaren kontra jotzen zuen eguzkiari begira lo kuluska egiten. Baina txapelketa hitza aipatzea nahikoa izan zen, arantza batek zulatu balio bezala, ernegatzeko.

Jon Lopategik burua makurturik, sukaldeko mahaiaren gainean piska bat etzanik, hitzegiten du, egia haundien pisua baileraman eta *"adiskide eta lagunak etengabe gainean ditudalako niak Txapelketara, bestela..."*, hasten da eta piska bat sutu ere egiten da ja-

san dituen "erasoen" inbentarioa egiten didanean. *"Baina hau ez duk polemikak zabaltzen hasteko ordua"*, esan eta aurpegira begiratzen dit, elkarrizketari ekiteko prest dagoela adieraziz bezala.

Jonek 55 urte ditu eta adin horretakoek gehienek haurtzaro nolabaitekoa pasatu bazuten, Jonena dramatikoa izan zen. *"Gerra bukatu eta etxera itzuli ginenean, jaiotetxea deseginik aurkitu genian. Lau horma bakarrik hituen zutik egindako hondamendiaren lekuko eta ezerezetik hasi behar izan genian, urteetan zorpean biziz. Hau ez huen hemen bakarrik gertatu, Gernika aldean, Bizkaiko leku askotan jasan ziaten zigorra eta horrek gero poso bat utzi dik. Gu beste zenbait herrialdetako euskaldunak baino gogorragoak gara la uste diat bai politika mailako adierazpideetan eta bai beste alor askotan"*, esaten du.

Hitzegiten ari garen sukaldeko leihotik jaiotetxea ikusten da 20 edo 30 metro-ra, Aldauri baserria alegia, baina izen poetikoago bat jarri dio Jonek bere etxeari: Lamiñerreka, etxe ondotik pasatzen den errekatxoan laminak ibiltzen zirela kontatzen baitzuten arbasoek.

Oso gazterik Tolosako sakramentinoetara joan zen eta pena dezenterekin gogoratzen zuen jaiotetxearen ondoan biziko zela inoiz egin zion promes bere buruari. Eta harriz jasotako amets horren barruan bizi da orain emaztea eta seme-alabekin.

Fraile ikasketak utzi eta ofizina batetan hasi zen lan egiten, bost urteren buuruan pentsu saltzaile hasteko. Bigarren ofizio honetan 18 urte egin zituen eta duela sei urte Ikastolen Federakundean sartu zen liberatu bertsolaritza eskoletan lantzeko, horrela bere afiziorik haundiena lanbide bilakatuz.

“Urretxindorra” izan omen zen bertsolaritza Bizkaian txertatu zuen bertsolaria. Beharbada Lopategi Bizkaian bertsolaritza zabaldu zuen gizon bezala pasatuko da historiara.



Amaia Urrutia: “Jon da neretzako bertsolari onena”

Nik ez dakit txapela aterako duen edo ez, baina ez dit gehiegi axola, neretzako Jon baita Euskal Herrian dagoen bertsolaririk onena. Diferentzia haundiarekin gainera.

Ez dakit berak zer irudi duen bere buruaz. Ez dakit esaten diodana sinesten

duen, baina ni nola erabat sinesturik nagoen, horrela esaten diot, eta berriz esango dut, ez diola ardura txapela ateratzen duen edo ez.

Neri mundu hori asko gustatzen zait, baina apenas txapelketara joaten naizen. Jonek ez du nahi izaten eta Harraitzek ere ez du saioetan etxekorik aurrean izan nahi eta ni errespetatu egiten dut nahi hori. Hala ere, bizi dudan giroa horixe delako, asko ikasi dut bertsolaritzaz.

Nik 22 urte nituenean ezagutu nuen Jon eta bere nortasunaz zera esan dezaket, berarekin bizitzeko izugarri atsegina dela. Nik uste dut gizartean beste irudi bat ematen duela, gogorragoa, baina etxean oso eraman erraza da. Hori bai, oso karakter fuertea du eta arrazoia duela uste duenean oso gogor jartzen da edonorekin, baina etxean ez du inoiz bere eritzirik inposatu eta haurrekin ere oso esku leunekoa izan dela esan dezaket.

Haurrei gauzak kontatzea gustatu izan zaio eta gure etxean eskola baino lehen ikasi dute haurrek irakurtzen eta idazten. Orain maisu titulua atera badu ere, semearekin eta alabarekin aspal didanik praktikatu du ofizio hori eta uste dut, orain, bertsolaritza erakutsiz pozik bizi dela.

Txapelketarekin beste guztiak bezala nerbioso jartzen eta estomagotik sufritzen du.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Gezurrari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Ez.
- **Zure pertsonaia politiko miretsiena?** Santi Brouard.
- **Azkena irakurri duan liburua?** Patrick Susking-en "El perfume".
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Askotan, baina ezingo niake zehaztu.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Ez zaidak inor bururatzten.
- **Esaera zahar bat?** Umearen zentzuna, etxean entzuna.
- **Harroenik sentiarazten hauen hire fisikoaren zatia?** Nere larru beltzaz.
- **Asko emozionatu hauen bertsorik?** Amurizak txapela irabazi zueneko Aitari botatako bertso haiekin.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Gernika Euskal Herrian eta Kalifornia atzerrian.
- **Labur erantzun:**

Batman: Telebistako filme bat.

M-ak: Ez diat ezagutzen.

"Pendulo de Foucault": Ez zekiat.

- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Ba omen zihoazen bi gizon zoroetxe baten paretik eta barruko patiotik "Zortzi, zortzi, zortzi", entzun omen ziaten, esaten ari zirela. "Igo hadi hormaren gainera", esan zioan bata besteari eta horma gainera igo zenarekin batean sekulako harrikada bat hartu omen zian buruan eta "bederatzi, bederatzi, bederatzi" segitu omen zien kontatzen.



Sebastian Lizaso, ehun kilotako gizona txapel baten azpian

Batzuek diotenez, Sebastian Lizaso da Baserri geroztik bertso txar gutxien bota duen bertsolaria. Beste askoren ustetan, nekerik ezagutzen ez duen monstruo bat da azpeitiarra. Beste askok bere tenpleari eta patxadari ematen diote daraman txapelaren meritua eta aurtan ere mikroaren aurrean egoten dakielako txapela eramango duen susmoak dituzte. “Jendea erabat engainatuta zegoek nere patxada kontu horrekin. Deskuido izugarria zeukak horretan eta are gehiago finalerako pronostikoarekin, pronostiko hori erabat zabalik baitzegok eta Anoetara doan edonork eraman bait dezake txapela”, esaten du.

Sebastian dezente minduta agertzen da txapelketa honen prestaketan zenbait jendekek erabili dituzten trikimailuekin. “Behin baino gehiagotan txapelketara ez presentatzea ere pentsatu izan diat, baina bertsolaritza gure buruaren aurre-

tik dagoela pentsatuz segitu nahi diat aurrera. Gertatu direnak jendeari argi eta garbi agertzearen aldeko ninduan ni, baina bere garaian ez hituen kaleratu eta orain ez duk horretarako ordua, baina txapelketa bukatzean errepasotxo bat emateko gogoarekin geratuko naitzela, uste diat”, bukatzen du.

Sebastianek eskuartean zituen lanak utzi gabe, Toyota etxearen konzesionaritza zabaldu zuen Beasainen eta geroztik lanaren eta bertso saioen esklabu bizi da. “Goizeko 8etan ateratzen nauk etxetik eta gaueko 9ak baino lehen gutxitan itzultzen nauk. Joan den asteko zubi luzean zehar gau guztiak okupatuak nitian eta final aurreko aste honetan ere gehinetan izan diat zer-bait. Bezperako egunean zetiat ordu batzu libre nora eta zertara noan pentsatzeko eta alde batetik horrela hobea dela pentsatzen diat, txapeldun izatea lastre izugarria baita finalera joateko orduan. Gainera azken egunean ruedora saltatu behar hori izugarri arriskugarria iruditzen zaidak. Nahiago izango nian askoz ere finalerditan parte hartu izan banu, ze finalerdietan aurrera egiteko kapaz ez bagara, ez diagu finalean, zer eginik”.

Txapela lastre ez ezik, zama ere gertatu zaio Sebastiani lau urteotan zehar, baina gustora eraman duen zama izan da. Jende askok txapela zein ondo eraman duen komentarioak egiten dituela esaten diodanean, piska bat harrotu egiten da. “Horixe duk ere nere lana

kotxe saltzaile bezala, jendearekikoa egitea eta nere lekuan egoten jakitea eta txapelarekin ere jendearekikoa egingen saiatu nauk eta horrek sekulako denbora piloa kendu zidak, mila lekutara joan behar baita sariak banatu edo eskua ematera edo, besterik gabe, egotera. Hori lana ez baduk ere, endredoa duk, endredu izugarria. Ez zekiat nola konpontzen naizen, baina astegunak okupatuta izateaz gain, urteko asteburu guztietan izan diat bertsotan egin beharra, familiako bazkari bat zelebratzeko libratu nuen bat izan ezik eta bizimodu honekin ezin duk luzaro iraun. Nola edo hala, baina luza gabe aldatu behar diat”.

Lizasok 31 urte ditu eta 106 kilo pisatzen ditu, txapelaren karga sinbolikoa kenduta ere.

Landetako unibertsitatean egin zen bertsolari eta eskola horretakoek bezalaxe, bertsolaritza elkarriketa bezala ulertu du, *“kontrarioari entzun eta gero egin behar duk bertsoa eta ez hura kantatzen ari den bitartean. Ez dik balio disimulatzeko haren azken puntuarekin gero bertsoari hasiera emateak, hori larrialdiren batetan zilegi bada ere”.*

Nerbiorik eta tentsiorik gabe ez dagoe la bertso onik egiterik esan ohi du eta gaur izango du horretarako okasiorik.



Juanita Alberdi: “Deseatzen nago txapela galtzeko”

Txapela oso gogorra izan da neretzat ere. Lehendik asko zebilen bertsotan eta txapelarekin konpromezuak gehitu egin ziren eta nik uste dut berarentzat ere gogorra izan dela martxa hau, egitea gustatzen zaizkion gauza asko utzi egin behar izan bait ditu.

Ordu libre apurretan kalera joateko ere gogorik ez du izaten, batez ere azken aldi honetan, jende guztia gainean jartzen bait zaio eta guztiak kontu berdinarekin, txapela gora eta txapela beheara. Horregatik azken aldi honetan ordu librearen bat hartzen badugu, mendi aldera joaten gara.

Nik egia esan, nahiago nuke galduko balu. Honekin ez dut esan nahi txapelaren kontra ezer dudarik. Berrito ateratzen badu ere, saiatuko naiz laguntzen, baina etxekoan erosotasun aldeetik bentaja haundiak aurkitzen dizkiot galtzeari.

Nik uste dut Sebastiani kezka asko ekarri dizkiola txapelak eta barruan buelta asko ematen dizkiola kontu horri, baina barruan gordetzen ditu bere kezkek. Pentsatzen dut egun onak ere pasatuko dituela eta disfrutatu ere

asko disfrutatzen duela bizimodu horrekin.

Bi mutil ditugu: Beñat eta Jon eta ni asteburuetan nere jaiotetxera joan ohi naiz.

Testa

- **Zeri diok beldurra?** Nere buruari.
- **Pijamarekin egiten al duk lo?** Segun zer eguraldi dagoen.
- **Zure pertsonaia politiko miretsiena?** Inori ez zioat kariño gehiegirik.
- **Azkena irakurri duan liburua?** "Obabakoak" bukatzen ari nauk.
- **Erridikuloa egin duan situazioaren bat?** Bertsotan programa betetzeagatik jartzen gaituztenean.
- **Zein neska euskaldun ezagunekin pasatuko huke gau bat?** Hori nik adina jakitea duk.
- **Esaera zahar bat?** Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu.
- **Harroenik sentiarazten hauen hire fisikoaren zatia?** Nere burua, nere ganbara esan nahi diat.
- **Askio emozionatu hauen bertsorik?** Bai. Entzuten gehiago kantatzen baino.
- **Bizitzeko Euskal Herriko zein herri aukeratuko huke edo atzerriko zein herrialde?** Euskal Herrian Hondarribia eta atzerrian Kanada.
- **Labur erantzun:**

Batman: Pelmada ematen ari den pelikula.

M-ak: Euskal talde rokeroa.

"Pendulo de Foucault": Ez zekiat.

- **Konta iezaguk txiste labur bat.** Neri errezildarrenak gustatzen zaizkidak. Behin jeitsi omen huen Azpeitira osaba oso gaixo zuen errezildar bat eta eza-gun batek galdegin omen zioan: "Zer moduz duk osaba?". "ondo, konozimendua ere etorri zaiok eta", erantzun omen zioan. Azpeitiarra pentsatzen une batez geratu eta zera esan zioan: "Etorri berria izango dik, orduan".